

# **DOKTOREGO TESIAK EGITEKO KONTRATAZIO DEIALDIA** **UPV/EHU-REN ETA MERCEDES BENZ ESPAÑA** **ENPRESAREN ARTEKO LANKIDETZARAKO** **HITZARMENAREN ESPARRUAN**

## **1. oinarria. DEIALDIAREN XEDEA**

UPV/EHUren eta Mercedes Benz España enpresaren artean sinatutako lankidetzarako hitzarmenaren testuinguruan, zeina 2017ko azaroaren 2an onetsi zen Gobernu Kontseiluan, deialdi publiko bat abian jartzen da doktorego aurreko hiru kontratu formalizatzeko, Mercedes Benz España enpresaren eta UPV/EHUren arteko interes partekatua adierazten duten proiektuetan doktorego tesiak egiteko (I. eranskinean zerrendatzen dira proiektuak).

Xede horietarako, deialdi honen ondorioz hautatzen diren pertsonak doktorego tesiak egiteko UPV/EHU indarrean dagoen araudi erregulazionala bete behar izango dute. Era berean, deialdi honetan jasotzen ez diren gaietarako, UPV/EHU langile ikertzaileak prestatzeko kontratazio deialdiaren (2017) arau orokorrak aplikatuko dira.

## **2. oinarria. ESKATZAILEEN BETEBEHARRAK**

Eskaera aurkezteko unean eskatzaileek bete behar dituzten baldintzak:

### **2.1. Baldintza hauetako bat betetzea:**

- a. **Doktoregora bide emango duen proiektuaren gaiekin lotura zuzena duen unibertsitateko titulu baten jabe izatea, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera lortu izan bada.** Salbuespenez, titulua aurretik lortu izatea onetsiko da baldin eta laneko eremuan nahiz ikerlanean proiektuaren gaiekin lotutako ibilbide bat egin dela frogatzen bada. IGBBk (Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordea) balioetsiko ditu baldintza hau betetzen dela zehazteko zirkunstantziak, baita titulazioa proiektura egokitzen ote den ere.
- b. **Doktoregora bide emango duen proiektuaren gaiekin lotura zuzena duen unibertsitateko titulu baten jabe izatea, 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera lortu izan bada, eta 2011ko urtarrilaren 1etik 2014ko urtarrilaren 1era arte hiru urtetik beherako seme-alabak zaintzen aritu izana ziurtatzea.** IGBBk (Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordea) balioetsiko du titulazioa proiektura egokitzen ote den.

### **2.2. Eskatzailearen batez besteko nota 6.5 edo hortik gorakoa izatea.**

Espediente akademikoak 1 eta 10 arteko batez besteko nota jasoko ez balu, espediente akademikoaren batez bestekoa kalkulatu egingo da irakasgai bakoitzean lortutako zenbakizko kalifikazioa biderkatuz irakasgai bakoitzaren kreditu kopuruarengatik eta lortutako produktu guztiak batu eta kalifikazioaz gainditutako kredituen guztirako kopuruarengatik zatituz. Plan ez berrituen kasuan, batez besteko nota kalkulatzeko lortutako kalifikazioen batura zatituko da gainditutako irakasgaien kopuru osoarengatik.

Espedientearen batez bestekoa kalkulatzeko, balioetsi edo egokitu ez dituen unibertsitateak kalifikatu ez dituen baliokidetu edo egokitutako irakasgaien kasuan,

jatorrizko ikasketetan edo ikastegian lortutako kalifikazioak konputatuko dira, baldin eta dokumentalki egiaztatu ahal bada. Dokumentalki egiaztatu ezin balira, nahiko kalifikazioaz gainditu direla ulertuko da.

Era berean, espedientearen batez besteko kalkuluari dagokionean, ez dira aintzat hartuko beste espezialitateetako irakasgaietan lortutako notak, ez eta masterreko ikasketetan ere.

Ikasketak atzerrian egin dituzten eskatzaileen kasuan, ANECAren ziurtagiri ofizialean agertzen den espediente akademikoaren batez bestekoa hartuko zaie aintzat.

### 2.3. Doktore tituluaren jabe ez izatea.

2.4. **Doktore ez diren langile ikertzaileak kontratatzeko bekarik edo laguntzarik ez jasotzea edo jaso ez izana**, prestakuntza jasotzeko edo doktorego tesi bat egiteko helburuz.

2.5. Europar Batasuneko herritarrak ez diren eskatzaileen kasuan, **Espainian lan egiteko alde aurretik administrazio baimen baten jabe izatea**, Espainian dauden atzeritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Legean ezarritakoaren arabera, abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoak emandako idazketan.

Kontratua sinatzeko unean eskatzaileek bete behar dituzten baldintzak:

2.6. I. eranskinaren arabera, ikerketa proiektuari dagokion eskaeran adierazitako UPV/EHUren doktorego programan matrikulatuta egotea. **Eskatzailearen ardura izango da aipatutako programan sartu eta onartzeko eskaera egitea, horretarako epean eta forman. Halakorik ziurtatu ez izanak laguntza ez ematea dakar berekin.** Aurreko **baldintza guztiak** betetzen ez dituzten edo legezko epean eta eran egiaztatzen ez dituztenak hautaketa prozesutik at geratuko dira.

## 3. oinarria. KONTRATUEN EZAUGARRIAK

3.1. Hiru laguntza sartzen dira gehienez deialdi honetan.

3.2. Eskainiko den lan-kontratua ZTBLren 21. artikulua arautuko du. Kontratudunak prestakuntza bidean dauden doktorego aurreko ikertzailatzat hartzen dira.

3.3. Kontratuduna, beraz, UPV/EHUren sail, institutu edo guneren batean sartuko da, doktorego tesirako bere ikerketa proiektua Mercedes Benz España enpresaren instalazioetan ere garatu ahal izateko kalterik gabe, enpresak baimenduta betiere.

3.4. Kontratua arduraldi osokoa izango da. UPV/EHUren eta MBEren artean sinatutako hitzarmenarekin bat etorriz, kontratuaren iraupena hiru urtekoa izango da, izaera orokorrez. Salbuespenez, eta betiere tesiaren zuzendariaren edo, hala badagokio, tesiaren eta MBEren zuzendarikidearen onespenearekin, kontratuak hiru urtetik beherako iraupena izan dezake edota laugarren urtez luza daiteke.

Kasu guztietan, kontratuaren jarraitasuna aurrekontu erabilgarria edukitzearen menpe egongo da, Mercedes Benz España enpresaren finantzaketatik eratorria baita, 1. Oinarrian ezarritakoaren arabera.

Nolanahi ere, kontratua luzatuko bada, ezinbesteko baldintza izango da eskaeran adierazitako doktorego programan matrikula urtero egitea. **Ez da programa aldaketarik onartuko luzapena egiteko.**

3.5. UPV/EHUK ezin izango du inor kontratatu mota honetako kontratuen bidez lau urtetatik gora, beti ere zenbatuta beste erakunderen batean kontratu modalitate honen bidez izandako aldia.

3.6. Aldi baterako lanerako ezintasunak, haurdunaldiko arrisku egoerak, amatasunak, umeen adopzioa edo harrerak, edoskitzaroko arrisku egoerak eta aitatasunak gelditu egingo dute epearen zenbaketa kontratuaren iraupenari dagokionez.

3.7. Ikerketaren arloko Errektoreordeak eten ahal izango dio beka interesatuari sei hilabetez gehienez ere, bekadunak horretarako eskaera arrazoitua eginez gero. Hori eginez gero, etenaldi hori ezingo da berreskuratu eta laguntza ebazpenean ezarritako epean amaituko da. Laguntzaren etenaldian zehar baja emango da Gizarte Segurantzaren. Etenaldiaren ondoren laguntza berriz jasotzeko izapideak egin ezean, bekari uko egin zaiola ulertuko da, eta automatikoki emango zaio baja.

Nolanahi ere, laguntza eteteko Mercedes Benz España enpresaren baimen espresua behar izango da.

3.8. Formalizatutako kontratuetako ordainsari gordina 14.545 eurotako izango da lehenengo urtean, 14.545 eurotako bigarrenean, 18.182 eurotako hirugarrenean eta 18.182 eurotako laugarrenean, hamalau ordainketatan banatuta.

#### 4. oinarria. ESKAEREN EDUKIA

4.1. Hautagai bakoitzak eskaera bakar bat aurkez dezake deialdi honetan. Dena den, I. eranskinean adierazitako proiektu bat baino gehiago aukeratu ditzake, bere interesaren arabera haiei lehentasuna emanez. Proiektuen lehentasuna ezin izango da aldatu eskaera aurkeztu ondoren.

4.1. Eskaerak IAeren webgunean eskura daitezkeen eredu arautuetan bete behar dira:

<http://www.ikerkuntza.ehu.eus>

Eskaera egiteko inprimakia paperezko euskarrian eta PDF gisa aurkeztu beharko da, eskuz idatzitako jatorrizko sinadurekin edo ziurtagiri elektronikoaren bidez sinadura digitalekin. Eskaera egiteko inprimakia **eskaeraren zati eta ataltzat hartuko da, eskaeraren gutxieneko edukia baita.** Epearen barruan eta formaz aurkeztu ezean, bazterrean utzi ahal izango da eskaera, zuzentzeko epean gehitu edo aldatu ahal izateko aukerarik gabe.

4.2. Era berean, honako agiri hauek ere gehitu beharko dira PDF formatuan, CD, DVD edo pendrive batean, eta Erregistro bulegoan entregatu beharko da:

- a. ***Doktoregora sarbide ematen duen titulazio edo titulazioetako ziurtagiri akademiko pertsonala***, non lortutako kalifikazio guztiak eta horiei dagozkien datak agertzen diren. Ziurtagiriak agertu behar du eginiko irakasgai eta kreditu guztiek osatzen dutela titulazio osoa. **Kasuan kasuko ikasketak UPV/EHUn egin dituzten hautagaiek ez dute agiri hau aurkeztu beharrik.**
- b. 2.1.b) oinarrian adierazitako salbuespenetako bat alegatuko luketen eskatzaileek, aurrekoaz gain eta norberaren kasua zein den, ***espezialitateko tituluaren kopia edo beronen ziurtagiri ofiziala*** agertu beharko dute edo hiru urtetatik beherako seme-alaben zaintzan aritu izanarena (***familia liburua***ren fotokopia).
- c. Atzerrian zatika edo osorik egindako ikasketen kasuan, gainera ***atzerrian egindako unibertsitate titulazioen batez besteko nota baliokidearen ziurtagiria*** aurkeztu beharko da, ***Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko***

**Agentziak (ANECA) emana.** Dokumentu hau ANECAREN webgunearen bidez lortu ahal da:

<http://www.mecd.gob.es/mecd/servicios-al-ciudadano-mecd/catalogo/general/educacion/203615/ficha.html>

- d. **Eskatzaileen Curriculum Vitae.** Agiri hau ingelesez aurkeztu ahal izango da Ekonomia, Industria eta Lehiakortasunaren ministerioaren ohiko formatuan. Txantiloia IA Eren webgunetik jaitsi ahal da.
- e. **NAN, atzerritarren identifikazio zenbakiaren edo pasaportearen fotokopia.**
- f. **Europar Batasuneko herritarrak ez diren eskatzaileek Espainian bizitzeko eta lan egiteko administrazio baimena aurkeztu beharko dute deialdiaren ebazpenetik hiru hilabeteko epean gehienez,** Espainian dauden atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Legean ezarritakoaren arabera, abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoak emandako idazketan.

**Atal honetan eskaturiko dokumentazioa besterik ez da ebaluatuko. Hortaz, ez da eskatutakoaz besteko dokumentazioa aurkeztuko, ez baita inola ere aintzat hartuko.**

4.3. Eskatzaileek euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez aurkeztu ahal dute eskaera.

Beharrezkoa izanez gero, IA Ek UPV/EHUren Euskara Zerbitzuari aginduko dio euskaraz aurkeztutako eskaerak gaztelaniara edo ingelesera itzultzea. Itzulpena jaso eta gero, posta elektronikoaz helaraziko zaio eskatzaileari, eskaerak adierazitako helbide elektronikoaren bidez.

Bost egunen epea izango du itzulpena birpasatu eta adostasuna agertzeko. Epe hau kontatzeko, aintzat hartuko da postaren gestoreak mezu elektronikoa ematerakoan emititzen duen egiaztagiria. Epe hori iraganik, ulertuko da eskatzailea ados dagoela itzulpenarekin.

## 5. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEA

5.1. Paperezko euskarrian egindako eskaera formalki erregistratuko da baldin eta UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordeari bidali bazaio, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako campusetan dauden erregistro nagusietako batean edo UPV/EHUren 2012ko maiatzaren 16ko ebazpenean (EHAA, 2012ko ekainaren 18koa) aipatzen diren bulegoetako batean aurkeztuta; nahi izanez gero, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua arabera ere aurkez daitezke.

Eskaerak edozein posta bulegotan ere erregistratuko ahal dira. Honelakoetan, dokumentazioa gutun irekian aurkeztuko da, posta zerbitzuko pertsonalak eskaeraren lehenengo orria zigitatuko badu. Ondoren, posta ziurtatuaren bidez bidaliko da helbide honetara:

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea  
Ikerketaren arloko Errektoreordetza  
Ikerketako Deialdien Atala  
Errektoretzaren eraikina  
Sarriena auzoa, z/g  
48940 Leioa (Bizkaia)

Fase honetan, **inprimakia osorik beteta ez aurkeztea arrazoia izango da hautaketa prozesutik at uzteko.**

## 6. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Eskaerak aurkezteko epea 2017ko azaroaren 29ra artekoa izango da.

## 7. oinarria. EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Kontratuen esleipenerako, honako irizpide hauek hartuko dira aintzat:

| Irizpideak   | Gehieneko puntuazioa |
|--|----------------------|
| 1. Espediente akademikoko batez besteko nota haztatua (masterra kontuan hartu gabe) (a) (b)  | 50 puntu             |
| 2. Proiektuaren gaiekin lotutako jardueretan izandako esperientzia eta curriculum (1. irizpidean balioetsitako espediente akademikoa kontuan hartu gabe) | 20 puntu             |
| 3. Euskara maila (c)   | 5 puntu              |
| 4. Beste hizkuntza batzuetako maila (d)  | 5 puntu              |
| 3. Elkarrizketa  | 20 puntu             |
| <b>GUZTIRA</b>   | 100                  |

IGBBk beharrezkotzat jotzen badu, eskaera kopurua handia delako, gutxieneko puntuazio bat ezarri ahal izango da 1. eta 2. irizpideetan, elkarrizketa puntuazio hori gainditzen dutenei bakarrik egiteko moduan, eta gainditzen ez dutenak hautaketatik at geratuko lirateke, beraz.

**(a) Oharra:** Espediente akademikoko batez besteko nota haztatua (balorazio irizpideen lehenengo atala) eskatzaileak egindako titulazioaren arabera normalizatuko da, aurreko ikasturteetan UPV/EHUn titulazio hori egin duten ikasleen batez besteko notak erabiliz.

Eskaerako titulazioa ez badago UPV/EHUn, edo titulazio horri dagozkion batez besteko noten kopurua ez bada adierazgarria, aurreko ikasturteetan UPV/EHUko titulazioetan lortu diren batez besteko notak erabiliko dira normalizaziorako.

### NORMALIZAZIORAKO ERABILITAKO FORMULAK:

**Eskatzailearen\_NK:** Eskatzailearen espediente akademikoaren normalizazio koefizientea.

**Eskatzailearen\_BatezBestekoa:** Eskaeran adierazitako espediente akademikoaren batez besteko nota haztatua.

**Titulazioaren\_BatezBestekoa:** Eskaerako titulazioaren espediente akademikoetako batez besteko nota haztatuen batez bestekoa.

**Gutx\_NK:** Titulazio guztietarako gutxieneko normalizazio koefizientea.

**Geh\_NK:** Titulazio guztietarako gehieneko normalizazio koefizientea.

**Titulazioko\_DesbEstand:** Eskerako titulazioaren azken urteetako espediente akademikoetako batez besteko nota haztatuen desbideratze estandarra.

**Eskatzailearen\_NotaNormalizatua:** 9.1, 9.2 eta 9.3 oinarrietan ezarri diren gainerako irizpideetan jasotako puntuazioei gehitutako normalizazioaren ondoriozko emaitza, puntuazio orokorra lortzeko (bi hamartarretan biribildua).

**NK\_eskatzailea =**

$$\frac{(\text{Eskatzailearen\_BatezBestekoa} \times 10) - (\text{Titulazioaren\_BatezBestekoa} \times 10)}{\text{Titulazioko\_DesbEstand}}$$

**Eskatzailearen\_NotaNormalizatua =**

$$50 \times \frac{(\text{Eskatzailearen\_NK}) - (\text{Gutx\_NK})}{(\text{Geh\_NK}) - (\text{Gutx\_NK})}$$

Ondoren, titulazio bakoitzeko normalizatutako puntuazio guztiak zerrenda bakar batean bilduko dira, handienetik txikienera ordenatuta.

Titulazio bat baino gehiago egin badituzte, proposatzen den ikerketa proiektuaren gaiekin erlaziorik estuena duena erabiliko da normalizaziorako.

**(b) Oharra:** Espainiako unibertsitate sistematik at lortutako espedienteen kasuan, aipatutako 1. irizpidean Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia Nazionalak (ANECA) atzerrian egindako unibertsitate ikasketen batez besteko nota baliokideak kalkulatzeko zerbitzuaren bidez esleitutako balioa aplikatuko da, baldin eta baliokidetza hori beharrezkoa bada lehiaketa prozesu batean aurkeztu ahal izateko.

ANECAk igorritako egiaztagiria deialdiaren 4. oinarrian adierazitako gainerako dokumentazioarekin batera erantsi beharko da.

Ziurtagiri hori aurkeztu ezean, 1. irizpideari dagokionean 10 puntu esleituko dira.

**(c) Oharra:** Adierazitako puntuazioa lortzeko, euskara mailaren egiaztagiria aurkeztu behar da, honako hauen arabera:

- C1 mailaren edo goragokoaren egiaztagiria eta baliokideak: 5 puntu.
- B2 egiaztagiria eta baliokideak: 3 puntu.
- Ez da kontuan izango adierazitakoak baino maila baxuagoko egiaztagiririk.

Egiaztagiriei dagokienez, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan ezarritako baliokidetasunak hartuko dira kontuan (297/2010 Dekretua, euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena).

**(d) Oharra:** Adierazitako puntuazioa lortzeko, legokiokoen hizkuntza maila egiaztatuz aurkeztu behar da, honako hauen arabera:

- C1 mailaren edo goragokoaren egiaztagiria eta baliokideak: 5 puntu.

- B2 egiaztagiria eta baliokideak: 3 puntu.
- Ez da kontuan izango adierazitakoak baino maila baxuagoko egiaztagiririk.

Egiaztagiriei dagokienez, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan ezarritako baliokidetasunak hartuko dira kontuan (297/2010 Dekretua, euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena).

## 8. oinarria. LAGUNTZEN TRAMITAZIOA ETA EBALUAZIOA

### **Ebaluaziorako onartu eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda:**

Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzako Ikerketaren Gestioiko Zuzendaritzak aztertu egin zituen aurkeztutako eskaerak. Azterketa hau amaitu eta gero, IAEk bere webgunean emango du argitara onartu diren eta bazterrean utzi diren eskaeren zerrenda, balioespen fasera iraganen direnak.

### **Okerren zuzenketa:**

Eskaerak aurkezteko epean zehar emandako dokumentazioa osoa ez balitz edo zuzen litezkeen erroreak edukiko balitu, IAEk eskatuko dio eskatzaileari 10 egunen epean osatu eta zuzen dezan.

Eskatzaileak ezin izango du ez hobetu ez ordezkatu lehenago aurkeztutako dokumentazioa eta eskaerak ezin izango dira inola ere berriro egin. IAEk eskatu ez duen dokumentaziorik ere ezin izango da aurkeztu.

Okerrak zuzendu beharko dira 5. oinarrian deskribatutako bitartekoak erabilia.

### **Ebaluaziorako onartu eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda:**

Agertutako dokumentazioa aztertu ondoren, bertan behera utzitzat hartuko dira epean eta formaz zuzendu edo osatu ez diren eskaerak. Behin betiko zerrenda IAeren webgunean argitaratuko da.

### **Ebaluazio Batzordea eta hautaketa prozedura:**

**7.** oinarrian deskribatutako irizpideen arabera ebaluazioa IGBBk esleitutako epaimahai batek egingo du, Ingeniaritza eta Arkitektura arloetako kideek osatuak, behar izanez gero IGBBk egokitzat jotako adituen laguntzarekin.

Elkarrizketan, eskaeran lehenik adierazitako proiektuaren zuzendariak parte hartuko du, edo hala badagokio, zuzendarikideetako batek.

Egindako ebaluazio txostenak IGBBri bidaliko zaizkio; hark dagokion esleipen proposamena aurkeztuko dio Ikerketaren arloko Errektoreordeari eta Errektoreordeak erabakia hartuko, gero argitaratzeko.

Eskaerak puntuazioaren arabera ordenatuko dira eta ordena horrekin bat etorriz esleituko zaio bakoitzari bere eskaeran agertzen den lehenengo proiektua, puntuazio hobia duen beste eskatzaile bati esleitu ez zaiona. Eskaera bateko proiektu guztiak dagoeneko esleitu badira, eskatzailea ez da kontratatuko.

Kontratatua izateko hautatutako pertsona batek ezezkoa ematen badu edo baztertuta geratzen bada, hautatuak izan ez direnen artetik puntuazio altuena duenari esleituko zaio haren proiektua, lehentasunezko edozein postutan proiektu hori eskatu izanez gero.

Hautagaiek MBE enpresaren oniritzia jaso behar dute. Ondorio horretarako, MBEk elkarrizketa bat eska dezake.

Kontratuak hutsik gera daitezke.

**Behin-behineko ebazpena:**

IGBBk behin-behineko ebazpenaren proposamena egingo du, IAeren webgunean argitaratuko dena, eskatzaile guztiek lortutako behin-behineko puntuazioa adieraziz.

Hautagaiek eskaeraren ebaluazio txostena eskatu ahal izango dute **pre-postdoc.dgi@ehu.eus** helbide elektronikora bidalitako mezuaren bidez.

Interesdunek 10 lanegunen epea izango dute egoki leritzeketen alegazioak aurkezteko. Aipatutako epean alegazio espresik jaso ezean, proposamenak onartutzat joko dira eta alegatzeko eskubidea bertan behera geratuko da.

**Behin betiko ebazpena:**

Epea hau iraganik, IAEk aurkeztutako alegazioak helaraziko dizkio IGBBri, bertan azter daitezen eta, ondorioz, behin betiko ebazpena egiteko proposamena helaraziko dio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari.

Kontratazio onartu zein ezesteko behin betiko ebazpena IAeren webgunean argitaratuko da.

**Behin betiko ebazpenaren aurkako errekurtsioak:**

Behin betiko ebazpenak administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere aldi berean erabilia:

1.- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtsio hori jarriz gero, eta errekurtsioa jarri eta hilabeteko epean ebazpen adierazirik jaso ezean, errekurtsioa administrazio isiltasuna medio ezetsi dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jartzeko epea 6 hilabetekoa izango da, aukerako berraztertze errekurtsioa ezetsitzat jo eta hurrengo egunetik kontatzen hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikulua eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegietan. Horretarako, 2 hilabeteko epea dago, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3. eta 46. artikulua).

**9. oinarria. KONTRATUA FORMALIZATZEA**

9.1. Kontratuak formalizatu baino lehen, kontratazioen esleipendunek laguntza lortzeko alegatu dituzten betebeharrak eta merezimenduen egiazkotasuna agertu beharko dute. Egiaztatu ezin balute, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak laguntza ukatzeko ebazpena emango du.

Dokumentazio hau agertzeko epea eman eta ezetsitako laguntzen behin-behineko ebazpenean adieraziko da.

Kontratuen esleipendunek dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte IAEn:

- a. Lan bizitzaren ziurtagiria.



- b. Eskaeran adierazitako doktorego programan matrikulatu izanaren ordainagiria.
- c. Deialdi honen esleipendun gisa dituzten betekizunak onartzeko dokumentua, tesiaren zuzendariak eta saileko/institutuko edo adskribatutako guneko zuzendariak ontzat emana.
- d. Identifikazio fitxa, datu pertsonalak, bankukoak, eta Gizarte Segurantzako afiliazio zenbakia dituenak.
- e. Zinpeko aitortpena, non interesatuak adierazten duen inoiz kontrataturik egon ez dela Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren 14/2011 Legeko 21. artikuluan aurreikusitako doktorego aurreko kontratu modalitatearen bidez, eta, egon baldin bada, zenbat egunez.
- f. Zereginetan hasi izanaren ziurtagiria.

**Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, kontratuaren formalizatzeari uko egiten zaiola ulertuko da.**

9.2. Aurreko atalean adierazitako baldintzak bete eta hurrengo hilabetean formalizatuko dira kontratuak eta kontratatutako langileak dagokien unibertsitate sail, institutu edo gunetan hasiko dira lanean.

Esleipenduna ez balitz agertuko adierazitako egunean kontratua sinatzeko ekitaldira edo sail, institutu edo gunean lanean hasiko, kontratuari uko egiten diola ulertuko da.

9.3. Salbuespenezko eta behar bezala justifikatutako kasuetan, Ikerketaren arloko Errektoreordeak baimena eman dezake, Mercedes Benz España enpresaren adostasunarekin, hasteko eguna gehienez sei hilabetez atzeratzeko. Atzeratzeko eskaera 9.1 oinarrian ezarritako epearen barruan aurkeztuko da.

9.4. Eskaerak ebaluatzean kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, alta emateko tramitea eten egingo da, edo hala dagokionean, kontratua deuseztatu egingo da.

9.5. Kontratua sinatu eta 6 hilabetera gehienez, Ikerketaren Gestioiko Zuzendaritzak (IGZ) ofizioz egiaztatuko du onuraduna eskaeran adierazitako doktorego programan matrikulatuta dagoela, bai eta tesiaren zuzendaria edo zuzendarikideak azkenik bertan adierazitakoak direla ere. IAEk ofizioz eta 6 hileroko maiztasunaz baldintza hau betetzen duen ikuskatuko du, kontratuak dirauen bitartean. Bi betebeharrak hauek diren bat bete ezean, kontratua atzera botatzeko arrazoitzat hartuko da.

## **10. oinarria. KONTRATATUTAKO LANGILEEN ESKUBIDEAK**

10.1. Eskubidea dute sartzen diren sail, institutu edo guneen laguntza eta babesa jasotzeko, tokian tokiko baliabideen neurrian, beren ikasketak eta ikerketa programak egiteko.

10.2. Kontratutakoek unibertsitateko Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak (SGIker) eta beroriek hartuko dituen ikertaldearen azpiegiturak eta materiala erabili ahal izango dituzte. Era berean, eskubidea izango dute sailaren ikerketa baliabideak erabiltzeko, eta ikertaldeak bere ikerlana egiten duen ikastegiko baliabideak ere, horretarako ezarrita dauden baldintzei men eginez betiere.

## **11. oinarria. KONTRATATUTAKO LANGILEEN BETEBEHARRAK**

11.1. Eskaeran adierazitako doktorego programan matrikula urtero formalizatuko dute UPV/EHUren graduondoko batzordeak ezarritako dituen epeen barruan.

11.2. Dagokien lana sailean, institutuan edo adskribatutako gunean egingo dute.

11.3. Laguntza jasotzearekin zerikusia duten txosten, inprimaki eta gainerako agiriak bete beharko dituzte IAek edo deialdia kudeatzen duten zerbitzuek hala eskatzen dietenean.

11.4. Honako deialdi honen aipamena egin beharko dute, kontratuak dirauen bitartean egingo liratekeen ikerketa jardueretatik ondorioztatuko liratekeen argitalpen eta bestelako emaitzetan.

11.5. Organo eskudunek egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontrol-jardueretara makurtzea, jarduera horietarako eska dezaketen edozein informazio emanaz.

11.6. UPV/EHUren titulartasuna aitortzea, eta hala badagokio eta 1. oinarrian aipatutako Mercedes Benz España enpresaren hitzarmenarekin bat etorritz, prestakuntzan ari den pertsonalak egindako ikerketa lanaren ondorioz sor litezkeen argitalpen, patente, modelo baliagarri eta jabetza intelektualeko objektuen nahiz lanen inguruan, jabetza industrial edo intelektualaren helburuko horien asmatzaile gisa egin beharreko aitopenari betiere eutsiz.

11.7. Ikertzailearen Gutun Europarrean aurreikusitako betebeharrak orokorrak eta espezifikoak betetzea.

11.8. Doktoregoa lortuko dute legozkiekeen doktorego arautegietan aurreikusitako epeen barruan.

11.9. Jabetza intelektuala babesteari eta konfidentzialtasuna gordetzeko konpromisoei buruzko klausulak onartzea, baita UPV/EHUK eta Mercedes Benz España enpresak sinatutako eta 1. oinarrian aipatutako hitzarmenaren gainerako klausulak ere .

## **12. oinarria. TESI ZUZENDARIKIDEEN BETEBEHARRAK**

12.1. Tesi zuzendarikideen betebeharra izango da doktoregaiei emandako laguntza zehaztutako helburuaren betetzeko baliatzen dela bermatzea, laguntza indarrean den bitartean tesi zuzendarikide gisa arituko direlarik. Era berean, IAeri jakinarazi beharko diote tesiaren defentsa eragotziko ahal duen edozein baldintzaren berri.

12.2. IAeri jakinaraziko diote deialdi honen bidez kontratatu den pertsonalak doktore gradua lortu duela.

12.3. IAek edo deialdiaren kudeaketan laguntzen duten zerbitzuek igortzen dizkieten txosten, inprimaki eta gainerako agiriak bete beharko dituzte.

## **13. oinarria. BATERAEZINTASUNEN ERREGIMENA**

13.1. Deialdi honen bidez hautatuek ez dute UPV/EHUrekin lan kontratu harreman egonkorrik izango eta aldi baterako kontratu harreman hori kontratuaren iraupenari dagokion aldia igarotakoan amaituko da.

13.2. Deialdi honen kargura finantzatutako kontratuak ez dira bateragarriak kontratatutako ikertzaileek eduki ditzaketen lan kontratuekin, edo soldata izaera duen edozein diru kopuru jasotzearekin, 3.4. oinarrian ezarritako arduraldi osoko erregimenaren ondorioz.

## **14. oinarria. KONTRATUAREN UKOAK, BAJAK ETA AMAIERAK**

Tesi zuzendarikideak deialdi honen bidez kontratatutako pertsonalak egin litzakeen uko, baja eta gainerako gorabeheren berri eman beharko dio UPV/EHUren IAeri, gertatu eta hiru egunetara, kasuan kasu justifikatzeko beharko litzatekeen agiriekin batera.

Kontratutako ikertzaileak ukoa, baja edo gorabehera jakinarazi beharko dio Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzari.

### **15. oinarria. JARRAIPENA**

15.1. Deialdi honen babesean kontratatutako langileek IAek edo deialdi honen kudeaketan laguntzen duten gainerako sailek edo zerbitzuek eskatutako txostenak, inprimakiak eta gainerako dokumentu guztiak bete beharko dituzte.

15.2. Oro har, dokumentu horiek deialdi honetarako argitaratzen diren ereduaren arabera beteko dira eta kontratuak indarrean ematen dituen urteetako bakoitzaren ondorengo lehenengo hilabetean aurkeztuko zaizkio IAeri.

15.3. Kontratua amaitu eta hilabeteko epean, amaierako txosten bat aurkeztuko da IAEn, kontratuaren indarraldian zer jarduera egin diren ezagutarazteko.

### **16. oinarria. KONTRATUEN ETETEA**

Lan kontratua ondorengo arrazoietakoa batengatik etengo da:

- a. Kontratatuak berak uko egitea.
- b. Kontratuaren indarraldia amaitzea.
- c. Eskaperan adierazitako doktorego programan matrikulatutako pertsonaren izaera galtzea.
- d. Laguntza emateko aintzat hartutako betebeharrak bete ez edo baldintzak aldatzea, barne izanik doktorego programako matrikula edo eskaeran adierazitakoak ez diren beste tesi zuzendarikideekin aritzea, IAeren baimen espresurik gabe.
- e. Tesi zuzendarikideek eta doktorego programaren arduradunak hala eskatuta, tesi zuzendarikideek eta doktorego programaren arduradunak abalatutako txostenak arrazoituz gero.
- f. Laguntza ezeztatzea, eginbeharrak ez betetzeagatik, edo laguntza ematerakoan aintzat hartu ziren baldintzak aldatzeagatik.
- g. Gerora sortutako bateraezintasunen batengatik.
- h. Laguntzarako aurrekontu-krediturik ez dagoelako.
- i. Doktore titulua eskuratzea. Doktore titulua lortzeak laguntzaren helburua baliogabetzea eragingo du eta, ondorioz, laguntza eskubideak bertan behera amaitzea. Honelakoetan, laguntzaren amaieraren ondorio administratibo eta ekonomikoak doktorego tesiaren defentsa egin eta hurrengo hilaren lehenengo egunean hasiko dira.
- j. UPV/EHUK eta Mercedes Benz España enpresak sinatutako hitzarmena, 1. oinarrian aipatutakoa, salatzea.

### **AZKEN XEDAPENETATIK LEHENA**

Deialdi honek administrazio bidea agortzen du eta honen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Hala izanik ere, aukerazko birjartze errekurtsioa jarri ahal izango da ebazpena

argitaratu eta hilabetearen epean Ikerketaren arloko Errektoreordearen aurrean, 39/2015 Legearen 123. artikularekin bat etorrira.

### **AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA**

Honako deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean.

Leioan, 2017ko azaroaren 8an

José Luis Martín González  
Ikerketaren arloko Errektoreordea  
Vicerrector de Investigación

## I. ERANSKINA

### **ESKAERAK MUGATU BEHAR DIREN IKERKETA PROIEKTUEN ZERRENDA**

1

**Izenburua: Elkarlaneko robotikaren teknologia Ekoizpen Prozesuetan Integratzea ibilgailu autonomoetan.**

Zuzendaria: Ekaitz Zulueta Guerrero

Doktorego programa: Doktorego programa Kontrol, Automatizazio eta Robotikako Ingeniaritzan

Laburpena: Tesi honen helburua da behar adina ezagutza garatzea ibilgailu autonomo bat (AGV) eta elkarlaneko robotika sistema bat integratu ahal izateko, gizakiekiko bere modu adeitsua landu ahal izan dezan eta ibilgailuen ekoizpen lanak garatu ahal izan ditzan Mercedes-Benz enpresak Gasteizen duen plantan. Erakusleak egiteko gai izan behar lukeen lanak bereziki gogorak dira langileentzat: eserlekuen errailak torlojutzeko lanak, baita ibilgailuaren elementu desberdinak –deposituak besteak beste– ainguratzea eta eustea ere; zeregin horiek langileek egiten dituzte orain, euren lanaldi osoan zehar besoak altxatzen aritu behar izaten dutelarik. Hortaz, bi helburu lortzea litzateke asmoa: batetik, langileentzat nekezenak diren zereginak automatizatzea eta, bestetik, produktibitatea hobetzea.

2

**Izenburua: Mantenimendu igarlea burutzeko Big Data.**

Zuzendaria: José Manuel López Guede

Doktorego programa: Doktorego programa Kontrol, Automatizazio eta Robotikako Ingeniaritzan

Laburpena: Proiektu honen helburua da Big Data tekniketan oinarritzea mantentze sistema igarle bat diseinatzeko, modu autonomo batean ikas ditzan a priori ezkutuan dauden erlazioak aktiboen artean (materialak eta gizakiak) baita, batetik, ekoizpen prozesua eta, bestetik, beharrezko mantentze ekintzak ere. Horretarako, silo modura erabiliko lirateke Mercedes-en hainbat sistematako datuak: ERP SAP HANA bere Data Warehousing-ekin, bere PLM sistema eta, batez ere, bere MES eta SPC sistemak, besteak beste. Era horretan, kausen eta ondorioen arteko erlazioak aurkituko lirateke, "gatillo" egoerak aurreikusiz, eta beraz, egoera horiei aurrea hartuta gorabehera problematikoak kudeatu beharrik izan gabe, ez direlako gertatuko besterik gabe, edo, gertatuko balira, sistemak proposatu dezan halako egoerei heltzeko modua.

3

**Izenburua: Digital Twins lortzeko Big Data.**

Zuzendaria: José Manuel López Guede

Doktorego programa: Doktorego programa Kontrol, Automatizazio eta Robotikako Ingeniaritzan

Laburpena: Industria 4.0-ren funtsezko ezaugarrietako bat dira malgutasuna eta aldaketetara bizkor moldatzeko gaitasuna fabrikazioaren eskakizunetan, edozein motakoak izanik ere. Prototipoak eta aurreserieak egitean datzan ohiko hurbilketak ez du balio, berekin dakarren prozesua oso luzea denez gero gehiegi irauten duelako.

Elementu baten Digital Twin edo biki digital bat eredu konputazional bat da, elementu horretan interes handiena duten alderdiak karakterizatzen oinarritzen dena, bai elementua berez, bai bere ekoizpen prozesua diseinatu, baliozkotu eta optimizatzeko baliabide bat eskainiz. Era berean, ekoizpen prozesuko zatien Digital Twin-ak lor daitezke haien portaera (makinak eta abar) aztertzeke sentsoerek atzitutako informaziotik abiatuta.

Proiektu honen helburua da Digital Twin-ak baliatzea ereduak eskueran izateko, horietan oinarrituta egin beharreko aldaketek ekoizpen prozesuan duten inpaktua aztertzearren, eta aldaketa horiek modurik hoberenean nola bideratu jakiteko. Elementuak, zeinetatik Digital Twin bat lortu ahal izango den, ekoizpen elementu indibidualak dira (makinak, besteak beste) edo fabrikazio prozesu konplexuak (fluxuak, besteak beste).

II. ERANSKINA

**KONTRATAZIO ESKAERAREN INPRIMAKIA DOKTOREGO TESI BAT EGITEKO  
UPV/EHU-REN ETA MERCEDES BENZ ESPAÑA ENPRESAREN ARTEKO  
LANKIDETZA HITZARMENAREN ESPARRUAN**

|  |  |                  |  |
|--|--|------------------|--|
| <b>ESKATZAILEA</b>   |  |                  |  |
| IZENA  |  | NAN/IFZ/PASAPORT |  |
| ABIZENAK   |  |                  |  |
| Nazionalitatea   |  | Generoa (G/E)    |  |
| Jaiotze data   |  |                  |  |
| Helbide partikularra   |  |                  |  |
| Herria   |  | Posta Kodea      |  |
| Telefonoa  |  | E-maila          |  |
| <b>ESKATZEN DEN PROIEKTUA I. ERANSKINAREN ARABERA (Hiru gehienez, lehentasun orden</b> |  |                  |  |
|  |  |                  |  |

*Behean sinatzen duenak adierazten du ezagutzen duela doktorego tesiak egiteko kontratazio Deialdiaren testua UPV/EHUren eta Mercedes Benz España enpresaren arteko lankidetzarako hitzarmenaren esparruan eta bera dela eskaera honetan adierazitako datuen egiazkotasunaren erantzule. Eskaera hau aurkeztean, interesatuak adierazten du baimendu egiten duela emandako informazioa datuen tratamendu automatizaturako UPV/EHUK duen fitxategian sartzeko, eta eskubidea duela une oro datu horietan sartu, haien edukia zuzendu edo baliogabetzeko, azken kasu honetan aurkeztutako eskaerari uko egiten diola ulertzen delarik.*

Lekua eta data:

Eskatzailearen sinadura